

# ¿AGONÍA O TRANSFORMACIÓN? EL CARLISMO EN LA NOVELA ESPAÑOLA, 1876-1912

## AGONIA EDO ERALDAKETA? KARLISMOA ESPAINIAKO ELEBERRIAN 1876-1912

Para Jose  
Joserentzat

### BAKE MILITARRA, GERRA LITERARIOAK

Zer irudikatzen du karlismoak?: galdera horrek eztabaidea eta polemika pizten jarraitzen du gaur egun, hein batean, askorentzat, karlismoa lotua dagoelako batez ere 1936ko uztaileko matxinada militarrarekin, Gerra Zibileko indarkeria eta errepresioarekin, eta mugimenduak azken 80 urteotan jasan dituen hamaika hausturekin —karlismoaren alderdi horiek guztiak sakon azaltzen dira Lizarrako Karlismoaren Museoak 2019ko urtarrilean inauguratu zuen behin betiko erakusketa berrian—.

Zer irudikatzen du karlismoak? ere galdera nagusia izan zen Spainian 1876 —karlismoaren porrot militarren urtea— eta 1912 artean —karlismoa mugimendu paramilitar gisa agertu zen urtea— eman ziren eztabaidea publiko eta politikoetan. Urte horietan, bazirudien karlismoa hiltzean zegoela edo antzeko beste ideología edo mugimendu batzuetan eraldatzan ari zela, esate baterako integrismo, foruzaletasun edo proto-nacionalismo euskaldun, nafar edo katalanean.<sup>1</sup>

Urte horietan, Benito Pérez Galdós (1843-1920), José María de Peredaren (1833-1906), Miguel de Unamunoren (1864-1936), Ramón María del Valle-Inclán (1866-1936) eta Pío Barojaren (1872-1956) mailako eleberrigile gailenek karlismoaren jatorriak, izaera eta patua aztertu zituzten. Bestalde, Galdósek eta Barojak karlismoa argi eta garbi kritikatu zuten, eta zenbaitetan etsaitzat ere hartu zuten; aitzitik Peredak, Unamunok eta Valle-Inclánek ikuspegi baikorragoetatik interpretatzen zuten karlismoa. Idazle horietako gehienentzat, karlismoa iraganeko ideología eta mugimendu politiko eta militarra zen orainaldiak baino, nahiz eta guztiak haren lorpenak eta onarpenaren zergatiak ulertu nahi zituzten, batez ere

### PAZ MILITAR, GUERRAS LITERARIAS

¿Qué representa el carlismo?: esta pregunta continúa generando debate y polémica hoy en día, en parte porque, para muchos, el carlismo sigue asociado ante todo con la insurrección militar de julio de 1936, con la violencia y la represión de la Guerra Civil, y con las múltiples fracturas que ha sufrido el movimiento a lo largo de los últimos 80 años — facetas del carlismo ampliamente reflejadas en la nueva exposición permanente inaugurada en el Museo del Carlismo de Estella en enero de 2019.

¿Qué representa el carlismo? fue también una pregunta central en los debates públicos y políticos que tuvieron lugar en España entre 1876, fecha de la derrota militar del carlismo, y 1912, con la reaparición del carlismo como movimiento paramilitar: años en que el carlismo parecía agonizar o transformarse en otras ideologías o movimientos afines, tales como el integrismo, el fuerismo o el proto-nacionalismo vasco, navarro o catalán.<sup>1</sup>

Durante estos mismos años, destacados novelistas de la talla de Benito Pérez Galdós (1843-1920), José María de Pereda (1833-1906), Miguel de Unamuno (1864-1936), Ramón María del Valle-Inclán (1866-1936) y Pío Baroja (1872-1956) indagaron en los orígenes, el carácter y el destino del carlismo. Por su parte, Galdós y Baroja lo hicieron desde posiciones abiertamente críticas, e incluso hostiles, hacia el carlismo; mientras que Pereda, Unamuno y Valle-Inclán interpretaban el carlismo desde perspectivas más favorecedoras. Para la mayoría de estos escritores, el carlismo como ideología y movimiento político y militar pertenecía más al pasado que al presente, aunque todos también deseaban comprender las razones de sus triunfos y de su popularidad, sobre todo durante la cruenta Se-

1. Urte horietan karlismoak izan zuen bilakaerari buruz, ikusi CANAL 2000: 211-72.

1. Sobre la evolución del carlismo durante estos años, véase CANAL 2000: 211-72.

1872-1876ko Bigarren Gerra Karlista odoltsuan, baita indarrean egon litezkeen alderdi jakin batzuk ere, haren kosmoikuspegia adibidez. Helburu horrekin, gure bost eleberrigileek erakusketa honetako aztergai diren eleberriak argitaratu zituzten: Galdósen *Doña Perfecta* (Perfekzio andrea) (1876), Peredaren *Peñas arriba* (Haitzetan gora) (1895), Unamunoren *Paz en la guerra* (Bakea gerran) (1897), Valle-Inclánen *Sonata de invierno* (Neguko sonata) (1905) eta Barojaren *Zalacaín el aventurero* (*Zalakain abenturazalea*) (1908).

Haietan karlismoari buruzko galderak egin zituzten gaur egun modernoa zaigun mundu bat sortzeko bidean zegoen mende-amaierako Europa bateko testuinguruan kokatuta. Alde batetik, karlismo orijinala Ilustrazioak eta industria-iraultzak eta Frantziako iraultzak ekarritako modernitate politiko, sozial eta kulturalaren kontrako erreakzio sakon batetik sortu zen. Bestetik, 1876tik aurre-rako karlismoaren balizko azken hatsak kointzidituko zuen Europa osoan barnako prozesu modernizatzalea sendotzearekin, bateratu berriak ziren Alemania eta Italia barne. Europan 1870-1871ko Frantzia eta Prusiaren arteko gerraren eta 1914-1918ko Gerra Handiaren arteko nolabaiteko bake-urteek kapitalismo ekonomikoaren arrakasta ikusiko zuten, zeina, hein batean, bigarren industria-iraultzaren asmakuntza teknologikoek sustatu zuten (etxeak, kaleak eta fabrikak elektrifikatza, telefonoa, automobila, zinema, irratia, hegazkingintza, etab.), baita nazionalismo-modu berrien eta «Afrika eskuratzeko lasterketa» eskrupulugabeak sinbolizatzen zuen imperialismo berri eta agresiboago bat sortzeak. Halaber, Spainian, Bigarren Gerra Karlista-ren amaierak garai baketsu eta egonkorragoa ekarri zuen, ahalbidetzen zuena monarkia konstituzional berri bat finkatzea, sistema parlamentario berri bat sortzea —alderdi kontserbatzaile eta liberala era baketsuan txandakatzean oinarritua zegoena— eta industrializazioa zein erdiko klase hiritar berri bat garatzea. Baita Afrikako Iparraldean inpe-

gunda Guerra Carlista de 1872-1876, así como considerar la posible vigencia de ciertos aspectos de su cosmovisión. Con este fin, nuestros cinco novelistas publicaron las novelas que conforman el principal objeto de estudio de esta exposición: *Doña Perfecta* (1876) de Galdós, *Peñas arriba* (1895) de Pereda, *Paz en la guerra* (1897) de Unamuno, *Sonata de invierno* (1905) de Valle-Inclán, y *Zalacaín el aventurero* (1908) de Baroja.

En ellas, formularon sus preguntas sobre el carlismo desde el contexto de una Europa finisecular en vías de crear un mundo que hoy nos resulta reconociblemente moderno. Si, por una parte, el carlismo original surgió de una profunda reacción de rechazo hacia la modernidad política, social y cultural generada por la Ilustración y por las Revoluciones francesa e industrial, por otro lado, la supuesta agonía del carlismo posterior a 1876 coincidiría con la intensificación de este proceso modernizador por toda Europa, incluyendo a las recién unificadas Alemania e Italia. Los años de relativa paz en Europa entre la Guerra franco-prusiana de 1870-1871 y la Gran Guerra de 1914-1918 verían el triunfo de un capitalismo económico impulsado, en parte, por las invenciones tecnológicas de la segunda revolución industrial (la electrificación de casas, calles y fábricas, el teléfono, el automóvil, el cine, la radio, la aviación, etc.), además de la emergencia de nuevas formas de nacionalismo y de un nuevo, y más agresivo, imperialismo, simbolizado por la inescrupulosa «carrera por África». Así mismo, en España, el final de la Segunda Guerra Carlista dio lugar a una época más pacífica y estable que permitiría la consolidación de una nueva monarquía constitucional, la creación de un nuevo sistema parlamentario, basado en el turno pacífico de los partidos conservador y liberal, así como el desarrollo de la industrialización y de una nueva clase media urbana, además del intento de crear un nuevo imperio en el Norte de África que supliese la pérdida, a principios y finales

rio berri bat sortzen saiatzea ere —XIX. mende hasieran eta amaieran kolonia latino-amerikarren eta asiarraren galera ordezkatze aldera—.

Garai hori ezaugarritu zuten aldaketa bizkorrekin batera, mende-amaierako Europa ere hainbat gertakarien lekuko izan zen: areagotzen ari ziren tentsio imperial eta geopolitikoek eragindako hainbat krisi politiko eta sozial luze, gero eta agerikoagoak ziren desparekotasun sozialak, lurralte- eta klase-identitate berriak sortzea eta erdi-klaseek eta klase burgesek masen gizartea agertzeagatik zituzten segurtasun-ezak. Frantzia, 1870-1871n Prusiaren aurka izan zuen porrota eta gero, identitate-krisi sakon batean murgildu zen, baita balizko gainbehera nazionalari buruzko eztabaida luzeetan ere, aurrerago beste lurralte batzuk kutsatuko zituztenak, Spainia adibidez, jota baitzegoen bere inperioa galdu izanaren eta bere sistema parlamentario berriak alhatzen zuen ustelkeria oligarkiko eta kazikilaren ondorioz. Gainera, zio soziopolitikoak zituzten arazo horiez bestalde, mendebaldeko Europa krisi existencial sakon batean ere murgilduta zegoen europar kultura modernoaren zimendu izan ziren balio filosofikoak eta zientifikoak zalantzaz jartzen hasiak ziren eta. Filosofoek eta idazleek kritikatu zituzten, batetik, kultura burgesaren materialismo eta konbentzionalismoa, eta, bestetik, bizitzaren ikuspegi zientifiko eta positibista hutsaren idortasuna, fede erlijiosoa ordezkatzea lortu baitzuen trukean ziurtasunik ez aringarri existencialik eskaini gabe.<sup>2</sup> 1880. hamarkada iritsi zenean, artista eta idazleen belaunaldi gazte bat, ezin erromantikoagoa zen «arracionalismoaren neke» berritua zen *mal du siècle* berri horrekin saminduta, gizarte burges berriarekin lotura zuzenagoak zituzten estetikak arbuiatzen hasi zen, nagusiki estetika errealista, «arteagatiko artea» printzipio parnasianoa ordezkatzen zuen erlijioan

del siglo XIX, de las colonias latinoamericanas y asiáticas.

Junto con los vertiginosos cambios que caracterizaron esta época, la Europa finisecular fue testigo también de una larga serie de crisis políticas y sociales surgidas de las crecientes tensiones imperiales y geopolíticas, de las cada vez más evidentes desigualdades sociales, de la emergencia de nuevas identidades regionales y de clase, y de las inseguridades de las clases media y burguesa con la emergencia de la sociedad de masas. Francia, después de la derrota de 1870-1871 frente a Prusia, se sumió en una profunda crisis de identidad y en largos debates acerca de la supuesta decadencia nacional que terminarían contagiando a otros países, tales como España, aquejada como estaba por la pérdida de su Imperio y por la corrupción oligárquica y caciquil que corroía su nuevo sistema parlamentario. Además, bajo estos problemas de raíz sociopolítica, la Europa occidental padecía también una profunda crisis existencial a raíz de su cuestionamiento de los valores filosóficos y científicos sobre los cuales se había construido la cultura moderna europea. Filósofos y escritores criticaron, tanto el materialismo y convencionalismo de la cultura burguesa, como la aridez de una visión exclusivamente científica y positivista de la vida que había conseguido desplazar la fe religiosa sin ofrecer a cambio ni certidumbre, ni consuelo existencial.<sup>2</sup> Llegada la década de 1880, una joven generación de artistas y escritores, afligidos por este nuevo *mal du siècle*, una renovada «fatiga del racionalismo» de índole profundamente romántica, comenzó a rechazar las estéticas más claramente asociadas con la nueva sociedad burguesa, fundamentalmente la estética realista, para abrazar nuevas estéticas basadas, tanto en la religión sucedánea del «arte por el arte» parnasiano, como, en muchos casos, en

2. Balioen krisi honi buruzko maisutasunezko analisi baterako, ikusi CEREZO GALÁN 2003.

2. Para un análisis magistral de esta crisis de valores, véase CEREZO GALÁN 2003.

zein, sarri, *épater les bourgeois* xede zuen kosmoikuspegi buhame eta dekadentea oinarri zituzten estetika berriei atxikitzeo. Horrela jaio zen simbolismo-decadentismoa, garai hartako dekadentismo soziopolitikoan inspiratuko zen mugimendua, mundu modernoa arbuiatuko zuena, eta erabat kontrajarriko zena belaunaldi abangoardista berrien baikortasunarekin, mende-aldaketarekin, azken aurrerabide teknologikoek eragindako «berriaren shock-a» ospatzten hasi baitziren.

Espainian, joera artistiko eta literario ezberdin horien arteko harremanak —errealismoa, simbolismo-decadentismoa eta abangoardismoa— oso bide ezberdinak hartuko zituen mendebaldeko Europako gainerako lurrealdekin alderatuz gero.<sup>3</sup> Independentzia Gerrak, Gerra Karlistek eta militarrek politika nazionalean esku hartzeak eragin zuten ezegonkortasun soziopolitikoaren ondorioz atzeratu egin ziren bai Espainian kultura burges eta industriala ezartzea bai kultura burges horrekin lotutako joera artistikoak hartzea, erromantizismotik errealismora zioazenak. Erromantizismo espanyolak, bertako kolorea maite zuenak, XIX. mendearen 30. eta 40. hamarkadetik aurrera bere proto-errealismo eredu propioari bide emango zion, lurrealde-kostunbrismoari alegia; genero hori gailenduko zen Espainiako hemeretzigarren mendeko eleberrigintzan 80. hamarkada bukaera arte. Galdósek berak, Espainian eleberri errealista modernoa sortu zuenak (terminoaren zentzu balzakiarrean eta dicken-siarrean), haren estetika errealista garaian nagusi zen kostunbrismoari kontrajarrita definituko zuen. Kostunbristak ziren Fernán Caballero, Pedro Antonio de Alarcón eta, batez ere, José María de Pereda tradicionalista, zeinak 80. eta 90. hamarkadetan idatzi zituen eleberri kostunbristak Galdós en realismo liberala zalantzaz jartza eta ahultza xede zuten arma bihurtuko zituen.

3. Garai honetako Espainiako historia literarioari buruz, ikusi, *inter alia*, MAINER 1983, 2000 ETA 2004.

una cosmovisión bohemia y decadente destinada a *épater les bourgeois*. Así nació el simbolismo-decadentismo, movimiento que bebería del decadentismo sociopolítico de la época y ofrecería una reacción de rechazo al mundo moderno que contrastaría radicalmente con el optimismo de las nuevas generaciones vanguardistas que, con el cambio de siglo, comenzaron a celebrar el «shock de lo nuevo» ocasionado por los avances tecnológicos más recientes.

En España, la relación entre estas distintas tendencias artísticas y literarias –realismo, simbolismo-decadentismo y vanguardismo– seguiría caminos diferenciados a los del resto de la Europa occidental.<sup>3</sup> La inestabilidad sociopolítica ocasionada por la Guerra de la Independencia, las Guerras Carlistas y la intervención de los militares en la política nacional tuvo como efecto retardar, tanto la implantación en España de una cultura burguesa e industrial, como la recepción de las tendencias artísticas, del romanticismo al realismo, asociadas con esa cultura burguesa. El romanticismo español, con su amor por el color local, engendraría, a partir de los años 30 y 40 del siglo XIX, su propio tipo de proto-realismo, siendo éste el costumbrismo regional, género que dominaría la novelística decimonónica española hasta bien entrada la década de los 80. El propio Galdós, creador en España de la moderna novela realista (en el sentido balzaciano y dickensiano del término), definiría su estética realista en contraposición al costumbrismo imperante de la época, de Fernán Caballero, Pedro Antonio de Alarcón y, sobre todo, del tradicionalista José María de Pereda, quien convertiría sus novelas costumbristas de los años 80 y 90 en armas arrojadizas destinadas a cuestionar y a contrarrestar el realismo liberal de Galdós.

3. Sobre la historia literaria española de esta época, véanse, *inter alia*, MAINER 1983, 2000 Y 2004.

Egoera literario horiek direla-eta Spainian errealsismo modernoa ezartzea eta finkatzea eta hura ordezkatu nahi zuen mugimendu simbolista-dekadentearen iritsiera ia batera gertatu ziren. Galdósek gertakari horren jakitun zela adierazten du 80. eta 90. hamarkadetan *novelas contemporáneas* (eleberri garaikideak) deitu zituenetan. Haietan, errealsismo tradizionalaren konbentzioak zalan-tzan jartzen dituzten jolas metafizionalez gain, dagoeneko gizarte burgesaren zimenduak astintzen ari ziren balio arrazionalista eta positibisten krisi sakona aztertzen da.<sup>4</sup> Hala ere, simbolista-modernista berrieik, edo modernistek, espainolez hitz egiten zuten lurralteetan esaten zitzaien moduan, ez zuten Galdós aitzindari edo irizkide gisa ikus-ten, baizik eta burgesia gorrotatuarekin lotzen zen estetika errealista zaharkituaren proposatzale gisa. Estetika hori barregarri utzi zuen Valle-Inclánen *Luces de Bohemia (Buhame-argiak)* antzerki-laneko pertsonaia modernistetako batek Galdósez trufatzen baita «Don Benito el Garbancero» deituz (VALLE-INCLÁN 1976: 118). Mende-amaierako beste idazle batzuek, haien artean Unamuno eta Baroja, Galdósen obrari begirune handiagoa dioten arren, baita Peredarenari ere, hemeretzigarren mendeko errealsismoa eta kostunbrismoa eleberri filosofiko eta metafísico berri baten zerbitzura jarriko zuten, zubiak eraikiz XIX. mende-amaierako errealsismoaren eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetako abangoardismoaren artean.

Testuinguru soziopolítico, cultural eta literario horretatik begiratzen zioten gure bost eleberrigileek karlismoari: Galdosék errealsismotik, Peredak kostunbrismotik, Valle-Inclánek modernismotik, Unamunok eleberri historiko-

4. Puntu honi buruz, ikusi LABANYI 2013 [1993]: 2-20. Mende-amaierako eleberriaren bilakaerari buruz, ikusi MEDINA 1979, RODRÍGUEZ PUÉRTOLAS (KOORD.) 1981: 109-123, ZAVALA (ED.) 1982: 337-485, ZAVALA (ED.) 1994: 218-315, GULLÓN 1992, LISSORGUES 1998, TURNER & LÓPEZ DE MARTÍNEZ (ED.) 2003: 49-121 eta (ikuspegia teorikoago bat izateko) VAUTHIER (KOORD. ETA ED.) 2019: 11-83.

Estas circunstancias literarias suponen que la implantación y consolidación del realismo moderno en España coincide prácticamente con la llegada del movimiento simbolista-decadente que aspiraría a suplantar. El mismo Galdós refleja una conciencia de este hecho en sus *novelas contemporáneas* de los años 80 y 90 donde, además de juegos metafícticos que dejan en entredicho las convenciones del realismo tradicional, aparece una exploración de la profunda crisis de valores racionalistas y positivistas que ya estaba socavando los cimientos de la sociedad burguesa.<sup>4</sup> Aun así, los nuevos simbolistas-decadentistas, o modernistas, como se conocerían en el mundo de habla hispana, no verían a Galdós como precursor o correligionario, sino como proponente de una trasnochada estética realista, asociada con la odiada burguesía; estética que fue ridiculizada por uno de los personajes modernistas de la obra de teatro de Valle-Inclán *Luces de Bohemia*, quien se burla de Galdós llamándole «Don Benito el Garbancero» (VALLE-INCLÁN 1976: 118). Otros escritores de la época finisecular, tales como Unamuno y Baroja, aunque más respetuosos con la obra de Galdós, e incluso con la de Pereda, pondrían el realismo y el costumbrismo decimonónicos al servicio de una nueva novela de índole filosófica y metafísica, creando puentes entre el realismo de finales del siglo XIX y el vanguardismo de las primeras décadas del XX.

Tal es el contexto sociopolítico, cultural y literario desde el cual nuestros cinco novelistas dirigieron su mirada hacia el carlismo: Galdós a partir del realismo, Pereda del costumbrismo, Valle-Inclán del modernismo, Una-

4. Sobre este punto, véase LABANYI 2013 [1993]: 2-20. Sobre la evolución de la novela española finisecular, véanse MEDINA 1979, RODRÍGUEZ PUÉRTOLAS (COORD.) 1981: 109-123, ZAVALA (ED.) 1982: 337-485, ZAVALA (ED.) 1994: 218-315, GULLÓN 1992, LISSORGUES 1998, TURNER & LÓPEZ DE MARTÍNEZ (EDS.) 2003: 49-121 y (para un enfoque más teórico) VAUTHIER (COORD. Y ED.) 2019: 11-83.

filosofi ko mota berri batetik, eta Barojak kostunbrismo bitalista berritu batetik. Orain ikusiko dugun moduan, eleberri horietako bakoitzak bere ikuspuntu propioa emango du karlismoaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz ezin baino berritzaileagoak diren eleberrietan, eleberrigintza espainolak 1876 eta 1912 artean izan zuen bilakaera eta ideologiaren eta estilo literarioaren arteko harreman konplexua argitzen dutenak.

muno desde un nuevo tipo de novela histórico-filosófica, y Baroja en un renovado costumbrismo vitalista. Como ahora veremos, cada uno de estos novelistas expresará su propia visión del pasado, presente y futuro del carlismo en novelas profundamente innovadoras que iluminan, tanto la evolución de la novelística española entre 1876 y 1912, como la compleja relación entre ideología y estilo literario.